



Baratze ekologikoa

Baratze ekologikoak ekosistema zaintzen eta inguruneko biodibertsitatea hobetzen laguntzen du. Naturan, giza jarduera jasagarria barne hartzen duen ekoizpen modua da, produktu, pestizida eta ongarri kimikoei uko egiten diena. Landare ezberdinen jatorria eta natura ere kontutan izaten da, ez daitezela transgenikoak izan ezta hazi hibridoak ere.

Baratze ekologikoa bertako inguruneko kultur egituraren murgilduta dago eta bertako paisaiaren partaide da. Meteorologiaren, toki baten orografiaren baita bertako jendearen sinismenen eta ohituren arabera ere eratzen da. Euskal Herriari dagokionez, Baserria da natur eta kulturaren arteko lotura adierazten duena, gure "kultur paisaia" sortuz.



Baratzea irailean

Udarako azken uztak jaso ondoren, udazken eta neguko landaketekin hasi behar da, besteak beste: aza, azalorea, porrua, aza, azalorea, borraja, kardua, zerba, brokolia, eskarola...

Batetik azaloreak landatu ditugu. Berezitasun bezala, azaloretik jaten duguna bere lorea da. Hau da, heltzen zaion fruta mamitsu hori litzateke lorea.

Bestetik, azak landatu ditugu. Ez zaio lur irauli berria gustatzen ezta azidoa ere, hori dela eta karea botatako eta egonkortutako lurrean landatzea komeni da.

Porruak, sasoi honetatik aurrera ezinbesteko garrantzia izango du baratzean. Izan ere, neguko hotza eta izotza hobekien jasaten dituen barazkia da. Igartubeitiko baratzean, loratuta zeuden porruak atera ditugu eta lehortzen jarri ditugu, haziak eskuratu ahal izateko.



Ingurunea

Irail erditik aurrera, gure inguruneak udazken kutsua hartzen hasiko dira, eta ongi begiratzen badugu, jada antzemango dugu udazkena datorrenaren arrastorik (garoa, korostia, intxaurrek, urrak, hego haizea...)

Baserritarrek meta edo zuhazzetan pilatzen zuten garoa lehortzeko, ondoren, ukilueta zabalduz. Ukiluan erabilitako garoa, ondoren baratzerako ongarri bezala erabiltzen zen, landare honek magnesio ugari duenez lurra mineral honekin ornitzen zen.

Igartubeitiko inguruneko gorostiek jada fruitu txiki gorrixka eman dute. Hegaztien oso gustukoak dituzte. Gorostia arantza familiako landarea da, baserrietan heskaia edo itxitura naturala egiteko erabili izan da, baita sukarra jaisteko ere, idorgarria delako eta bere zura berriz makilak egiteko.

Basarana (basoko + arana) biltzeko sasoi ere bada, ondoren patxarana egin ahal izateko.

Elorri zuria baserrietan heskai edo itxitura natural bezala erabili izan da, gorostiaren antzera.





Baratzearen eta ingurunearen zaintza Jakoba Errekondorekin kolaborazioan

- Beroaldi handien ondoren baratzea gogotik ureztatu.
- Xaboa, tabakoa eta azeri buztanarekin egindako nahaskia barazkien hostoetan eman zorriaren aurka.
- Baratzeako belarrak kendu eta tarteka lurra arrotu atxurrearekin, urak errazago zirkula dezan.
- Barraskilo eta bareak "kontrolatzeko" truku txiki bat: neguan piztu dugun beheko suaren hautsa zabaldu baratze ertzetan. Edota ontzi/botila ipurdiak lurlean sartu urez eta garagardoz beteta, barraskiloak eta bareak erakarriko ditu eta.
- Belazeak eta soropilak moztu eta ongarrizko garaia da.
- Fruta arbolen udako inausketa egin.
- Tomateak kimatu.
- Piper eta tomateak altuera hartu dutenean, parrak erantsi eta goor lotu, haizeak ez eramateko. Parrak hurritz makilez aginda badaude hobe.



**ONGI ETORRI IGARTUBEITIKO
BARATZE EKOLOGIKORA**